



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Botond Ódor tenorrek XX. mendearen lehen erdian Hollywooden leherketa kulturalean eragin zuten hungariar egileen musika interpretatuko du

- Rubén Fdez Agirrek pianoan, eta Lucía Astigarraga aktorea errezitazaille gisa, abeslari hungariarrekin batera azalduko dira datorren astelehenean, apirilaren 25ean, 19:30ean Arriaga Antzokiko foyerrean eskainiko duen errezitaldian.

Bilbo, 2022ko apirilaren 21a. – XX. mendearen lehen erdialdean, Erdialdeko Europako musikak eragin nabarmena izan zuen Hollywoodeko kultura-industrian. Desegindako austro-hungariar inperioko artistek zinemara eraman zuten beren sormena, eta operetak birsortu ziren Amerikako lurretan.

Botond Ódor hungariar tenoreak bere ama-hizkuntzan abestuko ditu datorren astelehenean, apirilaren 25ean, kultura-eztanda horren ernamuina izan ziren konpositoreen kantak, eta baita egile hungariarrenak diren baina ingelesez idatzitako bestelako doinuak ere, “Amerikako amets” horren barruan loratutako autoreenak alegia. Artistak hautatutako programak, hurrengo konpositoreen lanak aurkeztuko ditu: Pongrác Kacsóh (1873-1923), Jenő Huszka (1875-1960), Imre Kálmán (1882-1953), Rudolf Friml (1879-1972) eta Miklós Brodsky (1905-1958).

Botond Ódor ez da bakarrik agertuko taula gainean. Izan ere, Rubén Fdez. Aguirre piano-jotzaile ezaguna eta Lucia Astigarraga antzezlea izango ditu laguntzaile. Astigarragak narratzailearen papera beteko du eta garaiko testuinguru soziokulturala girotuko du, orduko idazle eta humanista batzuren hitzen bidez.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus